

EUSKAL KORTSARIOEN UHARTEA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Pilier uhartea (Frantzia), 1172. Buzayko abadiako monjeek beste abadia bat eraikitzea erabaki zuten Loira ibaiaren estuarioko lau hektareako lur zatitxoan. Irla txiki eta bakartuak zistertarrek bilatzen zituzten soiltasuna eta austeritatea eskaintzen zituen. Baina nonbait, Pilierrek zorrotzegi betetzen zituen printzipio horiek, baita zistertarrentzat ere, eta 33 urte geroago Nourmoutier izeneko beste uharte batera aldatzea erabaki zuten, handiagoa eta abegitsuagoa baitzen hura. Horrenbestez irla hutsik geratu zen, hainbat mende geroago euskal kortsarioak iritsi ziren arte.

Pilier uharteko kortsarioen berri zaharrenek 1545eko data dute, eta 1693. urtean egotzi zituzten betiko. Beraz, hainbat kortsario belaunaldik hartu zuen babesa bertan, eta gehienak gipuzkoarrak ziren. Gotorlekua eta talaia eraiki zituzten eta, handik, Loira ibaitik itsaso zabalera irten nahi zuten ontziak behatzen zituzten. Frantziako koroak hainbat espedizio bidali zituen uhartea garbitzeko asmoz, baina kortsarioen gotorlekua menderaezina izan zen mende eta erdian.

Zingo edo kalatu txikiko ontziak nahiago zituzten, hondarpez jositako Frantziako kostalde atlantikoan erabilgarriagoak zirelako. Gehienez ere 80-



SURVOL DE FRANCE

Pilier uhartearen airetik argazkia. Lur zati txikiak biztanle gutxi izan du historian zehar: monje zistertarrak bizi izan ziren laburki XII. mendean; 1996an itsasargia erabat automatizatu baino lehen, farozainen bizileku izan zen; eta tartean, euskal kortsarioek erabili zuten kokagune estrategiko gisa.

100 bat kidek osatzen zuten eskifaia eta 8-10 kanoi izaten zituzten. Maiz arrau-nontziak erabiltzen zituzten, hondartzetan lehorreratzeko eta ibaietan gora joateko aukera ematen zielako. Gainera, ontzi txikiagoak merkeagoak ziren.

Ez zuten uretan denbora asko igarotzen, janaria, bolbora eta gainerako horniduretan aurrezteko. Eta normalean bakarka nabigatzen zuten, edo gehienez ere binaka. Horrela, harrapakina lortuz gero, inbertsioa azkarrago berreskuratzen zuten eta gutxiagoren artean banatu behar zuten.

Émile Gabori (1872-1954) historialari frantziarrak honela deskribatu zuen Pilierko euskal kortsarioen jardueraremu: "Bretainiako kostaldean, Poitou jardun ohi zuten. Loiran gora askotan joan ziren, eta bidean aurkitzen zuten orori erasotzen zitoten. Egunero lortzen zuten harrapakinen bat. Morhibaneko sarrerari eta Brestekoari erasotzen zitelen, eta Noirmoutier suntsitu zuten. Pilierren ezkututzen ziren, Nourmoutierretik gertu, eta behatokia eraiki zuten bertan. (...) XVII. mendearen amaiera arte ez zen lortu haiek egoztea". ■



Komikiaren pasarte honetan, pertsonaiak Bechdel testaren baldintzak azaltzen ditu.

Bechdel testa: benaz hartu beharreko txistea

Alison Bechdel komikigile estatubatuarrek 1985ean argitaratu zituen bere izena daraman testaren arauak, *Dykes to Watch Out For* komiki-tiran. Pertsonaietako batek besteari esaten dio film bat ikusteko hiru baldintza bete behar dituela: gutxienez bi emakumek agertu behar dute; biek elkarrekin hitz egin behar dute; eta gizonak ez beste edozein gaiz hitz egin behar dute. Eskakizunak bete zituen azken filma *Alien* (1979) dela gaineratzen du. Egileak dio

egokiagoa dela testari Bechdel-Wallace esatea, ideia Liz Wallace lagunak eman ziolako, eta hari Virginia Woolfen *A room of one's own* irakurritako bururatu zitzaiola.

"Berripaper feminista alternatibo batean argitaratutako lesbianen txiste bat besterik ez zen", Bechdelen hitzetan. Azken urteetan, besteak beste, Suediako Film Institutua eta Eurimages funtsa testa irizpidetzat erabiltzen hasi dira proiektuak balioesteko. ■